

EDUKIAK:

1. PLATON
2. ARISTÓTELES
3. TOMAS DE AQUINO
4. DESCARTES
5. HUME
6. KANT
7. MARX
8. NIETZSCHE

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:

Kurtsoa hiru ebaluaketetan zatitua dagoela ikusita, beste hainbeste izango dira egingo ditugun azterketak. Azterketa hauen emaitza izango da kalifikazioaren osagai nagusia.

Azterketaren egitura Selektibitateko azterketak duenaren antzekoa izango da. Honetan hiru dira proposatzen diren galderak:

- ✚ 1) Laburpena eta kontzeptuen definizioak.

Lauzpabost lerroko laburpena testuaren ideia nagusia adieraziz. (puntu 1)

Testuaren bi kontzeptu edo espresioak azaldu eta esplikatuz. (0,5 puntu bana)

Galdera honetan ikasleak azalduko du analisi eta sintesirako duen gaitasuna.

- ✚ 2) Gai baten azalpena.

Ikasleak garatu behar du autoreari buruz landutako bi gaietatik bat. Hau izan daiteke testuan bertan lantzen dena, edo autoreari dagokion bigarren gaia. (4 puntu)

Galdera honetan ikasleak gai baten bitartez autorea eta bere obrarekiko duen ezagupen globala azaldu behar du.

- ✚ 3) Autorearen testuingurua eta beste autorearekiko alderaketa.

3.1 Kontestualizazio historiko-filosofikoa. (puntu1)

3.2 Beste autorearekiko alderaketa. (2 puntu)

Azalpen honen bidez, ikasleak erlazionatuko du testuaren egilearen pentsamendua beste autore batenarekin, bien arteko adostasun eta desadostasunak baloratu eta alderatuz.

- ✚ 4) Aspektu formalak. (puntu 1)

BERRESKURAPEN PROZEDURAK

Ebaluaketa bakoitzari dagokion azterketa egin ondoren, ahalik eta epe laburrenean, (bi aste barru ahal bada) berreskurapena egiteko aukera izango dute suspenditu duten ikasleek. Kurtsoa gainditzeko, printzipioz, hiru ebaluazioen batez besteko nota gainditu behar da. Ebaluaketa bakoitzaren behin betiko nota ebaluaketaren eta berreskurapenaren batez bestekoa izango da (5eraino heltzen ez bada, berreskurapena gainditurik, 5 izango da). Batez besteko nota hau ez bada gainditzen, kurtso osoa berreskuratu beharko da. Maiatzean, astirik eza dela eta, berreskurapena bikoitza izango da, ikasleak hauta dezala: hirugarren ebaluazioarena (suspenditu badu) ala kurtso osoarena (hiru ebaluazioen media ez bada gainditzen).